

LEIRE ARANBURU: "GOGORRA DA, BAINA MEREZI DAU"

1 6 urte ditu Leire Aranburuk eta bera dogu gure txirrindularitzak emon daben izarrik haundixenetako bat. Ez dira egunero mallabitarrak bizikleta hartu eta Italiaraino joaten, ez horixe!. Bizikleta asko gustatzen jakola esan deusku eta hori igerri eitten jako; ondo ezagutzen daben mundu bat da. Ikasketak, barrez, ño! hor pixkat larritxuago dabil. Liburuak ala pedalak aukeran jarri ezker ez leuke seguruenik duda haundirik eingo. Gogorik ez dau falta, eta gure partetik behintzat, animorik be ez dau faltako. Eutsi horri!.

DROGETENITTURRI- ITALIA ALDETIK IBILI ZARA. KONTAIGUZU, ZELAN IZAN DA HORI?

Leire Aranburu- Bueno, lau etapa euki genduzen. Nahiko ondo ibili nintzen; hori bai, aldatzak eta gogorrak izan zien. Ekipuetan bigarren gelditu ginen jeneralien, 30 segundutara.

D.- ZELAN AUKERATU ZINTUZTEN HARA JUTEKO?

L.A.- Santanderreko ekipo batekin jun ginen. Nesketan ekipo ona da. Bere ekipoko bi eruen zituen eta Euskal



Hementxe dugu Leire irabzi dituen sari batzuekin.

13

GADIFOL -en
Aukera guztiak
KODAK garrantzia
Komentukoa, z/g.
Tlf. eta Faxe: 17 06 71



arral s.l. eksklusibak

Luis Cañas • La Española azeituna
La Verja zumo eta Iturri kontserben **BANATZAILEA**

Goitondo Goikoa poligonoa - B-3 Pabiloia
Telefona: 17 60 75 • Mallabia

OKINDEGIA
Ignacio Peña



Okindegiko ☎ : 17 01 69


Etxeko ☎ : 17 14 55

Goienkalea, 12 - behea **ERMUA**

ZARAUZTARRA
JATETXEA

LEHEN, ORAIN
ETA BETI

- Zapua
- Txuletak
- Bildotsa
- burduntzian
- Laranja flana



KAFETEGIA



XAGUA


Zubiaurre kalea,
23 behea

14



**KALITATEZKO
IRAKASKUNTZA**

PRO



- ARRAINDEGIA - ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

**ESKaintza Berezia
OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59 ERMUA

Herritik beste bi, Durangoko bat eta biok.

D.- EMAITZEKIN GUSTORA ORDUEN?

L.A.- Bai, pozik.

D.- ZELAKUE DA MALLABIKO TXIRRINDULARITZAREN MAILA?

L.A.- Asko bajatu da, baina nibela nahiko ona da. Orain txirrindulari askoz gitxiago dauke. Nesketan lehen hiru ginen, baina tenporada erdixen bik itxi ein eben eta bakarrik gelditzen naz. Datorren urtien urten eitten dot eta ez da neskari gelditzen. Lehenengo urteko kadetietan nahiko ondo dabiz, aurre samarrien, eta bigarren urtekue-tan be ondo.

D.- HEMENGO ETA KANPOKO TALDIEN ARTIEN DIFERENTZIARIK IKUSTEN DOZU?

L.A.- Nesken taldean ez, danok batera korritzen dogu. Baina mutiletan kanpokuek hobeto dabiz hemenguek baino. Nibela askoz gogorraue daukie. Afizionauetan ez, afizionauetan hemenguek hobeto dabiz, baina txikixetan kanpokuei nibel haundixae ikusten jakue.

D.- GOGOR ENTRENAU BEHARKO DA, EZTA?

L.A.- Guk bakarrik entrenatzen dogu; bueno, mediku espezial batzuk daukaguz. Astien hiru egun edo izaten die. Hiru orduko entrenamentuek, nahiko gogorrak. Larogei kilometro inguru eta belozidatie be nahiko altue, 35eko medixak edo.

D.- MEDIKUEN LAGUNTZA IZATEN DOZUE ORDUEN?

L.A.- Hori da norberak zer nahi daben. Geu joaten gara medikuangana eta hori geure konture da. Gero medikuek eruten deuskuz entrenamentuek. Baina geuk propio jun behar dogu harrengana.

D.- ZELAKUEK DIE ITALIARRAK?

L.A.- Jatorrak. Gure inguruek behintzet laguntzeko prest, eta oso jatorrak.

D.- ZUEKIN BATERA BESTE HERRI BATZUETAKO TXIRRINDULARIEX BE IZANGO ZIEN, EZTA?

L.A.- Bai, italiarrak, Esloveniakuek, frantzesak... Talde ugari egon die, baina lau edo Italiakuek bertakuek izan die. Urte desberdinetako taldie izan arren danok batera urten genduen karreran, txikixenetatik haundixeneta-ra. Txikixek igual 20 kilometro, guk

40 eta haundixek 60. Jeneralien danok batera urtetzen dogu, baina kilometruen goraberran batzuek arinago amaitzen dabe.

D.- ZURE MODUKO GAZTETXO BATEK ZE TRABA IKUSTEN DAU BIZIKLETA MUNDUEN AURRERA EGITEKO?

L.A.- Etorkizune eukitzeko ondo ibili behar da. Nesketan kontaute dagoz ondo dabizenak eta profesionaletako nesketan ez dago ekiporik. "Por libre" ibili behar dozu eta kanpoko ekipa baten sartzeko Giani Longo bat edo ez bazara...

D.- GIANI LONGO AITATU DOZU. ZEIN DA ZURE IDOLOA?

L.A.- Nesketan? Ba hori, Giani Longo. Gero kategorixa bajuetan Joane Somarriba Sopelakue, Izaskun Bengoa, Berta Fernandez... oso jende ona da.

D.- ETA ZELAN LOTZEN DIE ENTRENAMIENTUEK ETA ESKOLIE? ONDO DOIEZ IKASKETAK?

L.A.- Puff! Ikasketak ez jataz ondo jun. Esamina sasoiaren entrenamentuko orduak gitxitu eitten dozuz, edo rodillue ordu erdikue edo... Konpaginau leikez. Ikasle ona bazara eitten dozu, baina horretarako izan ein bihar da.

D.- TXIRRINDULARITZAN JARRAITZEKO GOGUAKIN?

L.A.- Bai, bai. Niri bizikletie gus-tau eitten jata, eta segitzeko animuekin bai. Axe ba, aurren bakarrik sentidu naz, ikusten dozu bierra egiteko ez daukezule inor, eta bueno... eskerrak beste ekipa batzuetako jentie euki dotela eta harekin lagundute-eta, ondo. Baina segidu bai. Gainera datorren ur-tien kanpora urtetzen dot eta...

D.- ETA ZELAN JUN DA AURTENGO UR-TIE?

L.A.- Bueno, nahiko ondo. Nafarroako Itzulian egon naiz eta nire kategorixan zortzigarren edo amaitu dot. Gero Emakumeen Bira, haundixe-kin batera, eta hor hamargarren amaitu naban, kontrarrelojiaren bigarren eginda, lehenenguanandik sei segundutara; gero Madrilan be egon naz, gero Italiako Giruen eta Espainiako kanpeo-natuen hamargarren.

D.- GELDITU BARIK IBILI ZARA ORDUEN.

L.A.- Ba bai. Entrenau be asko ein dot, baina merezi izan dau.



Lasterketa batzuetan neska eta mutilek elkarrekin hartzen dute parte.

D.- LAGUNTZA ALDETIK ETA, ZELAN IBILTZEN ZARIE?

L.A.- Erropak-eta ekipuek emoten deuskuz. Guk neskak karrera gitxi izaten doguz urtien eta tenporadian azkenera, segun zenbat karrera egiten doguzan, postuek eta ikusitte, diru bat emoten deuskue. Klasifikaziñuan gorabeheran be bai. Hori Gipuzkuako federaziòotik emoten deuskue.

D.- MUTILEK ALA NESKAK DAUKEZUE NIBEL HOBIE MALLABIXEN?

L.A.- Mutilena askoz hobie da, askoz gogorraue. Guk urtien zier mutilekin be korritzen dogu, eta amaitzeko kapaz bagara. Gero guk bueltak be korritzen doguz eta mutilek ez, eta horrek asko laguntzen deusku.

D.- ZER ESANGO ZEUNKIXUE MALLABIKO GAZTIEI BIZIKLETAN UBILTZEKO ANIMAU DAITEZAN?

L.A.- Bueno, bizikletan ibiltzeko jakin behar da asko sufridu behar dala,

asko eskatzen dauela, baina ahal dan bitartien jentie apantau daixela. Galtzen doie eta penie izango litzateke. Sasoi baten asko eta onak ginen, karre-rak irabazten genduzan, baina aspaldi-xen asko galdu da.

D.- ZEINTZUEK DAROIE MALLABIKO TXIRRINDULARI TALDIE?

L.A.- Eskoletan Jose Arrizabalaga dabil. Lehenengo urteko kadetietan Camilo eta beste eibartar bat, Novoa. Bigarren urteketan Iñaki Goigana eta nesketan nire aitte.

D.- AMAITZEKO ZEOZER GEHITU NAHI BADOZU...

L.A.- Jentie animau daixela eta neskei gehixau apoiau daixuela, ze nesken kirola apur bat marjinaute ikusi da, eta hori, ahal dan neurrixen lagundu daixiela.

D.- MARJINAZIÑO HORI ZEIN ALDETIK IKUSTEN DOZU?

L.A.- Ba bai federaziñuan aldetik, ze karrera gitxi antolatzen deuskuez, eta baita jentian aldetik be, ze nesken kirolai ez jako emoten inportantzirik. Esaterako, jentiek ez dau horrenbeste entusiasmo erakusten nesken bira bat ikusteko, eta uste dot gehixa animau behar litzatekeela, merezita behintzat badaukagula.

D.- KIROLAREKIN ZERIKUSIRIK EZ DAUKEN GALDERA BAT. ZER ERITZI DAUKAZU HONDARRABIKO ALARDIEN GERTAUTEKUAZ?

L.A.- Bueno, niri ondo begitandu jata. Ez dakit, gu be pertsonak gara eta parte hartzeko eskubidie daukagu. Uste dot aintzine gizonezkuen gauza bat zala eta horregatik txokau jakuela, baina mundue aurrera doie eta uste dot parte hartu ahal dabiela.

D.- ESKERRIK ASKO.

IÑAKI ARREGI
PELLO MUGARZA

Ekintza

ESKOLAKO MATERIALEA

KOPIAK KOLOREZ

FAX PUBLIKOA



Goienkale, z/g • Tlf. 17 20 08



**BAR
GERALEKU**

Bost'erdietatik zabalik.

San Inazio, 5. • ☎ 17 00 32